Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2023-09-28(e)(a)n, OSOKO BILKURAk erabagi hau hartu dauela:

**3.- PIIE 2022-2024 PROGRAMAKO 2023KO LAGUNTZA OINARRIAK ETA DEIALDIA ONARTZEA.**

**Xedea**

PIIE 2022-2024 programako 2023ko laguntza oinarriak eta deialdia onartzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 2022ko abenduaren 27ko Erabakiaren bidez, Bermeoko Udalari 5.690.714,63 euroko dirulaguntza zuzena ematea adostu du.

Laguntza horren xedea, Kurtzio, Zarragoitxi eta Itxasbegi auzoko hiri-berroneratze integralerako proiektuaren garapena finantzatzea da, eta Eusko Jaurlaritzak eta Foru aldundiek garatutako Inbertsio Estrategikoen Erakunde arteko Planaren (PIIE 22-24) barruan kokatzen da.

Plan hori 2022ko martxoaren 29an onartu zuen Jaurlaritzaren Kontseiluak.

Bigarrena: Esleitutako zenbatekoa **5.690.714,63** eurokoa da, hurrengoa izanda banaketa, helburuen arabera:

| PLAN INSTITUCIONAL DE INVERSIONES ESTRATEGICAS (PIIES 2022-2025) | |
|---|---|
| **KONTZEPTUA** | **KOPURU GUZTIA** |
| UDAL BULEGOAREN ZERBITZUA (SANTAMAÑE, 5) | **305.200,00 €** |
| GUNE DEGRADATUEN BIRGAITZEA | **2.146.323,23 €** |
| ERAIKIN PRIBATUEN BIRGAIKUNTZA – KAPITAL TRANSFERENTZIA | **3.239.191,40 €** |
| **GUZTIRA** | **5.690.714,63 €** |

Hirugarrena: Eraikin pribatuen birgaikuntzarako kopurua (**3.239.191,40 €)**, hurrengo komunitateen gastuak finantzatzeko da:

CSV: 07E7000D8B6900R3J8C6C6N8C1

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000D8B6900R3J8C6C6N8C1

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 29/09/2023
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 29/09/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/09/2023 17:02:04

EXPEDIENTE ::
2023IDA_ERA_0055
Datea: 31/03/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

| Kalea | Zenbakia | Etxebizitzen kopurua |
|---|---|---|
| IPARRAGIRRE KALEA | 1 | 6 |
| IPARRAGIRRE KALEA | 2 | 13 |
| IPARRAGIRRE KALEA | 3 | 13 |
| IPARRAGIRRE KALEA | 4 | 8 |
| GRUPO TXIBITXIAGA | 1 | 12 |
| GRUPO TXIBITXIAGA | 2 | 13 |
| GRUPO TXIBITXIAGA | 3 | 13 |
| GRUPO TXIBITXIAGA | 4 | 12 |
| **GUZTIRA** | | **90** |

Horretarako Bermeoko Udalak laguntzak onartu behar ditu, hurrengo izanda horien helburua:

| **PLAN INSTITUCIONAL DE INVERSIONES ESTRATEGICAS (PIIES 2022-2025)** | |
|---|---|
| Komunitateei laguntza zuzenak eraikinen birgaikuntzarako (Kapital transferentzia) | **2.706.687,40 €** |
| Kalteberatasun egoeran daudenentzako laguntza bereziak (Kapital transferentzia) | **532.504,00 €** |
| **GUZTIRA** | **3.239.191,40 €** |

<u>Laugarrena:</u> Laguntza horiek onartzeko, Bermeoko Udalak laguntza-deialdi bat onartu beharko du jabekideen erkidegoentzat eta beste deialdi bat kalteberatasun-egoeran dauden jabeen erkidegoetako partikularrentzako.

<u>Bosgarrena:</u> Jabekideen erkidegoentzat laguntza hitzarmen bidez onartzea proposatzen da.

<u>Seigarrena:</u> Kalteberatasun-egoeran dauden jabeen erkidegoetako partikularrentzako laguntzarako Bermeoko Udalak oinarriak eta deialdia onartuko ditu.

<u>Zazpigarrena:</u> Aurreko guztia bideratzeko Bermeoko Udalak laguntza oinarriak onartu behar ditu eta horiek onartuta eraikin bakoitzeko jabe erkidegoarekin hitzarmen bat sinatuko du dirulaguntza bideratzeko.

**Erabakia**

Udal Osoko Bilkura honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

<u>LEHENENGOA:</u> Inbertsio Estrategikoen Plan Instituzionala esparruan jasotako laguntzaren eskakizunak betetzeko, Jabekideen erkidegoentzat laguntza oinarriak onartzeko espedientea hastea.

CSV: 07E7000D8B6900R3J8C6C6N8C1

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000D8B6900R3J8C6C6N8C1

Sinadurea eta datea
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 29/09/2023
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 29/09/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/09/2023 17:02:04

EXPEDIENTE :: 2023IDA_ERA_0055
Datea: 31/03/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

<u>BIGARRENA:</u> Deialdia exekutatzeko aurreikusita dagoen zenbatekoa **3.239.191,40 €**-koa da eta udalaren 2023ko aurrekontuaren kontura, 0700-15120-7810100 eta 0700-15120-7810200 - Komunitateei laguntza zuzenak eraikinen birgaikuntzarako eta Kalteberatasun egoeran daudenentzako laguntza bereziak (Kapital transferentzia) partidetatik hain zuzen ere.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespenaren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikuluaren arabera), Nadia Nemeh Shomaly alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

*Orri-oinean sinatzailea eta data*

CSV: 07E7000D8B6900R3J8C6C6N8C1